

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2166

AGINDUA, 2017ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena; honen bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasketak –heziketa-zikloak izan ezik– ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei dei egiten zaie hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten, 2017-2018 ikasturtean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartutako Heziberri 2020 Planaren helburua argia da: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin. Plan horrek «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa» biltzen du, hezkuntza-eredu pedagogikoaren gidalero nagusiak xedatzen dituena hain zuzen. Paradigma-aldaketa esanguratsua dator, izan ere konpetentzietan oinarritutako hezkuntza du ardatz proiektu horrek. Konpetentzien araberako pedagogian, jakintzez, egiten jakiteaz eta izaten jakiteaz ikasitakoa transferitu, artikulatu eta konbinatu egiten da, egoera funtzional konplexuak konpontzeko.

Horrezkero, ikasleen irteera-profil orokorra, Oinarrizko Hezkuntzaren helburua, oinarrizko konpetentziak lortuz iristen da. Oinarrizko konpetentzien artean batzuk orokorrak edo zeharkakoak dira, arazoak ebazteko edo bizitzako hainbat egoerei aurre egiteko baliagarriak direnak. Beste konpetentzia batzuk espezifikokoak dira, diziplina bati edo batzuei dagozkienak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak zera dio: Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko konpetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. Eta ikasleek Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako lortu behar dituzten oinarrizko konpetentziak dira ikasleen irteera-profil orokorra, hezkuntza-xedeak betetzeko eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan moldatzen jakin dezaten. Irteera-profil hori lortze aldera, euskal hezkuntza-sistemako irakasleek konpetentzien profil egokia eduki behar dute, ezin hobeto ekin ahal izateko beren egitekoei. Zentzu horretan, ikasleek irteera-profilean ezarritako konpetentziak eskura ditzaten ahalbidetzeko beharrezkoa den profil konpetentziala erdiesten laguntzea da irakasleen prestakuntzaren helburua. Hori dela eta, hezkuntza-eskumenak dituen sailaren prestakuntza-ekintzek honako ezaugarri hauek izango dituzte, besteak beste: bikaintasuna sustatuko dute, hezkuntza berriztatzeko proiektuen bidez eta langileen arteko lankidetzak bultzatuko dute (berdinen arteko prestakuntza, sareak sortzea).

Testuinguru horretan, aipaturiko 236/2015 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriari jarraikiz, Hezkuntza Sailak EAEko hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana onartu du. Plan horrek jasoko ditu euskal hezkuntza-sistema osoa zuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko neurri guztiak eta garrantzi berezia izango dute bertan konpetentzien araberako eredu aplikatuz Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak lortzeko estrategiek. Hobekuntza Plan horrek aurreikusten duen lerro estrategikoetako bat «Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza» da. Lehenetsuneko lerroa izango da, halaber, Prest_Gara Plana, helburu duena unibertsitateaz kanpoko irakasleei etengabeko prestakuntza ematea 2014-2017ko aldian. Nazioarteko ikerketak bat datoz honekin: hezkuntza hobetu nahi duen edozein aldaketa, aldaketa horren agente nagusiak baldintzatzen du,

hots, irakasleek, irakaskuntza-kalitatearen hobekuntzak hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza baldintzatzen duelako.

Zuzentasun eta bikaintasun hori lortzeko, etengabe hausnartu, gaurkotu eta hobetu behar da ikastetxeko heziketa-lana eta ikasketa. Hezkuntza-komunitate osoa, bai ikastetxea zein irakasleak eta gainerako langileak, baita familiak ere, funtsezkoak dira irakatsi eta ikasteko prozesuan, eta parte aktiboa hartu behar dute etengabe hobetzeko prozesuan.

Horregatik, proposatzen da prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak eta -proiektuak ikastetxeen barrutik eta haien premietatik abiatzea, soluzioak ikastetxean bertan aplika daitezzen, eragin nabaria izan dezaten, eta hasierako egoera aldatzen dela ikus dadin. Ikastetxe jakin baten barruko bikaintasun-proiektuek eta -esperientziek eragin handiagoa dute, irakasleei, gainerako langileei eta ikasle guztiei eragiten baitie, eta antolaketa aldatzeko bidea izan daitezke. Horregatik, ikastetxeak proiektuak aurkeztera gonbidatzen ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, irakasleen etengabeko prestakuntza berrikuntzaren bidetik eramateko, eragin positibo bat sortuz ikastetxearen ohiko dinamikan. Era berean, lan-praktika egokiak partekatzea gonbidatzen ditu, bai ikastetxean bertan, bai beste ikastetxeekin, eta, hartara, inter pares prestakuntzaren balioa azpimarratzera.

Horregatik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotzen diren xedapenetan ezarritakoarekin bat eginez, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra arautzen duten printzipioei buruzko Legearen testu bateginaren VI. izenburuan jasotako xedapenekin bat eginez ere (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuan diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileak onartzen du testu bategin hori), eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko 2016rako aurrekontu orokorrak, 2017ra ere luzatu direnak, onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legeak baimendutako kredituen arabera, eta oro har ezar daitezkeen gainerako xedapenekin bat eginez, aurrekontuko diru-hornidura nahikoa dagoenez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da diru-laguntzak ematea 2017-2018 ikasturtean zehar hezkuntza-sistemen bikaintasuneranzko bidean jarraian zehaztuko den prestakuntza motaren bat egiten duten unibertsitateaz kanpoko edozein maila eta motatako ikasketak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei –heziketa-zikloak soilik ematen dituztenei izan ezik–:

- Berrikuntza-proiektu integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak.
- Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak.
- «Partekatuz ikasi» esperientziak.

2. artikulua.– Onuradunak.

Deialdi honetako diru-laguntzen onuradun izan daitezke itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren unibertsitateaz kanpoko edozein irakaskuntza-maila edo mota emateko baimena badute, heziketa-zikloak soilik ematen dituztenak izan ezik.

3. artikulua.– Deialdiaren hornidura ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko prozedura.

1.– Helburu hori lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura, guztira 550.000 euro bideratuko dira.

2.– Hornidura hori honela banakatuta geratzen da, diruz lagun daitezkeen proiektu-modalitateen eta lurralde historikoen arabera:

a) 104.000 euro berrikuntza-proiektu integraletarako (16.000 euro Arabarako, 50.000 euro Bizkairako eta 38.000 euro Gipuzkoarako), bai eta 15.000 euro curriculuma aberasteko proiektuetarako.

b) 362.000 euro hezkuntza-berrikuntzarako prestakuntza-proiektuetarako, lurraldeka honela banatuta: 60.000 Araban, 170.000 euro Bizkaian eta 132.000 euro Gipuzkoan.

c) 69.000 euro «Partekatuz ikasi» esperientzien zentro tutoretarako.

3.– Lehiaketa bidezko prozeduraren bidez esleituko da lurralde historiko bakoitzeko eta diruz hornitu daitekeen proiektu-mota bakoitzeko zenbatekoa. Aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, lehentasunak finkatzeko, eta, horretarako, I. eranskineko balorazio-baremoa hartuko da kontuan. Honako hauek soilik hornituko dira diruz, betiere, agindu honek ezartzen duen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta: 14. artikulua ezartzen duen gutxieneko puntu-kopurua lortzen duten artean puntu gehien eskuratzen dituztenak. Balorazio-fasean lortzen duten puntu-kopuruari jarraituz hornituko dira diruz, goitik behera, onuradunen gehieneko muga bete arte edo, dagokionean, dagokion prozedurari esleitutako diru-kopurua agortu arte. Berdinketarik badago, honako hauek izango dute lehentasuna: 2016-2017 ikasturtean deialdi honen babespean finantzaketa ekonomikorik lortu ez zuten ikastetxeen proiektuek. Haien artean ere berdinketarik badago, honako hauek izango dute lehentasuna: ikasle bekadunen ehunekorik handiena duten ikastetxeek.

4.– Ebazpenen xede izango dira, lehenik eta behin, berrikuntza-proiektu integralei dagozkien prozedurak. Proiekturen batean esleitutako diru-hornidura agortuko ez balitz, bai eskatzen diren betekizunak betetzen dituen proiektu integral nahikorik ez dagoelako, bai emandako kopuruak ezarrita dagoen gehienekoa baino txikiagoak direlako, berrikuntzarako prestakuntza-proiektuei dagozkien diru-hornidurara gehituko litzateke sobera geratu den kopurua, lurralde berean. Bigarrenik, curriculuma aberasteko proiektuen prozedurak ebatziko dira. Aurreko prozeduran bezalaxe, esleitutako diru-hornidura agortuko ez balitz, bai, curriculuma aberasteko arloan, eskatzen diren betekizunak betetzen dituen proiektu nahikorik ez dagoelako, bai emandako kopuruak ezarrita dagoen gehienekoa baino txikiagoak direlako, berrikuntzarako prestakuntza-proiektuei dagozkien diru-hornidurara gehituko litzateke sobera geratu den kopurua. Hirugarrenik, praktika onen esperientziei dagozkien prozedura ebatziko da. Soberakinik geratuko balitz «Partekatuz ikasi» esperientzien prozeduraren ebazpena egin ostean, kopuru hori proportzionalki gehituko litzateke lurralde bakoitzari berrikuntzarako prestakuntza-proiektuak egiteko esleitu zaion diru-hornidurara. Azkenik, berrikuntzarako prestakuntza-proiektuei dagozkien prozedurak ebatziko dira. Berrikuntzarako prestakuntza-proiektuei dagozkien prozeduretako bat ebatzi ondoren soberakinik gertatuko balitz, hiru lurraldeei esleitutako diru-hornidurara gehituko litzateke kopuru hori, proportzionalki.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Ikastetxe bakoitzak proiektu mota bakarrerako finantzaketa eskuratuko du deialdi honen kontura (berrikuntza-proiektu integralak, curriculuma aberasteko proiektuak eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak), eta, dagokionean, «Partekatuz ikasi» esperientzia baterako finantzaketa ere eskuratuko du. Nolanahi ere, 1. artikuluan jasotako modalitate bakoitzerako eskabidea aurkez daiteke. Kasu horretan, honela jardungo da:

– Ikastetxe batek proiektu mota bakoitzerako eskabide bat aurkezten badu eta bi proiektuen edukia bera bada, aukeraketa-prozeduretatik kanpo geratuko dira biak.

– Ikastetxe batek proiektu mota bakoitzerako eskabide bat aurkezten badu eta bi proiektuen edukia ezberdina bada, berrikuntza-proiektu integrala balioetsiko da lehenik, eta, dirurik ematen bazaio, curriculumak aberasteko proiektua edo hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektua ez dira sartuko balorazio-fasean, eta dagokion esleipen-prozeduratik kanpo geratuko dira.

2.– Zer proiektu finantzatzeko ematen den dirua, hura garatzeko eta gauzatzeko zuzeneko gastuak ordaintzeko baino ez da erabiliko diru-zuzkidura; nahi izanez gero, gastu guztiak ordaintzeko, hala nola hizlariak kontratatzeak eta proiektuan parte hartzen duten irakasleek haren barruko jarduerak egitekoak. Prestakuntza-jardueraren gastu gisara hartu ahal dira honako hauek: prestakuntza-jardueraren kostua –prestakuntza ematen duen erakundearen aurrekontuaren arabera–; prestakuntzarako material bibliografiko lagungarria, eta hizlariaren lekualdatze-dietak edo ostatu- edo jan-edanetarako gastuak, prestakuntza ematen duen erakundeaz kanpokoa denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen lekualdatze- edo jan-edanetarako gastuak. «Partekatuz ikasi» esperientziei dagokienez, ordea, aukera izango da diru-zuzkidura esperientzia batean parte hartzen duten ikastetxeen arteko joan-etorrietako gastuak ordaintzeko; izan ere, «Partekatuz ikasi» modalitaterako diru-laguntzaren xedea ikastetxe tutorearen gastuak ordaintzea da.

3.– Proiektuari lotuta dauden eta diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100 lagunduko da diruz, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, gehieneko hauekin:

– 3.000 euro gehienez berrikuntza-proiektu integraletarako eta curriculumak aberasteko proiektuentzat.

– 2.000 euro gehienez 2016-2017 ikasturtean diruz lagundu ziren berrikuntza-proiektu integralen bigarren urterako.

– 1.000 euro gehienez 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan diruz hornitu ziren berrikuntza-proiektu integralen hirugarren urterako.

– 2.000 euro gehienez hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuetarako.

– 1.500 euro «Partekatuz ikasi» esperientzien zentro tutoretarako, tutoretzapeko zentro bakoitzeko.

4.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak 2017ko irailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitartean egin beharko dira. Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa % 50ekoa izango da.

5. artikulua.– Baztertzeak.

Baztertu egingo dira deialdi honetako baldintzak betetzen ez dituzten proiektuak, bai eta honako hauek ere:

a) «Eleaniztasunerantz» eleaniztasuna bultzatzeko lerroaren ildoko berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak, lerro hori beste deialdi batzuen barruan dagoelako.

b) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien integrazioa sustatzen duen «Sare_Hezkuntza Gelan» lehentasunezko lerroaren ildoko berri-

kuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak, lerro hori beste deialdi batzuen barruan baitago.

c) Ikastetxe batek aurkezten dituen berrikuntza-proiektu integralak curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta haien edukia bera bada.

d) Irakasleentzako jarduerak bakarrik garatzen dituzten eta irakaskuntza-lanaren ondorio diren berrikuntza-proiektu integralak curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta ikastetxeko ohiko jardunaren parte badira eta ez irakatsi eta ikasteko prozesuena.

e) Heziketa-zikloei baino ez dagozkien hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak.

f) Heziketa-zikloei baino ez dagozkien hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta aurkezten dituzten ikastetxeek horrelako proiektuak egiteko zuzkidurarik eskuratu bazuten aurreko bi ikasturteetan (2015-2016 eta 2016-2017) eta proiektua berria ez bada edo aurreko ikasturtean landutako gaiak garatzen ez baditu.

g) «Partekatuz ikasi» esperientzietan parte hartzeko eskaerak, baldin eta ikastetxeak ez baditu haiek aurrera eramateko hiru pertsona gutxienez.

h) «Partekatuz ikasi» esperientzietan parte hartzeko eskaerak, baldin eta ikastetxeek esperientzia berean parte hartzeko dirua eskuratu bazuten aurreko bi ikasturteetan (2015-2016 eta 2016-2017).

6. artikulua.– Berrikuntzarako Proiektu Integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak.

1.– Deialdi honetan, berrikuntza-proiektu integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak honela ulertuko ditugu:

a) Ikastetxeak bultzatu nahi duen hezkuntza-ereduaz sakon hausnartzeko proiektuak dira hezkuntza berrizatzeko proiektu integralak, eta aldatu nahi den hezkuntza-jardueraren zeharkako alderdi nagusiei ekitea dute helburu. Garrantzitsuak izateagatik, ikasturte bat baino gehiago behar dute horrelako gaiak, baita hezkuntza-komunitatearen akordioa ere. Heziberri 2020 Planaren esparruan, berrikuntza-proiektu integralek prestakuntza-jarduerak proposatzeko eta zentroaren hezkuntza-ereduaren gainean hausnartzeko aukera ematen diete ikastetxeei, irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuan beharrezko hobekuntzak sartzeko, gaitasunetan oinarritutako ikuspegitik. Bi ikasturte iraungo dute gutxienez, eta hiru gehienez. Proiektuaren epea bukatutakoan, ikastetxeak beste ikastetxeei aurkeztu ahal izango die haien esperientzia «Partekatuz ikasi» modalitatearen bidez, ikastetxe tutore gisa.

b) Curriculumak aberasteko proiektuak dira ikasgelan metodologia aktiboak ezartzea, eta maila goreneko gaitasunak izan edo ez, ikasle guztien gaitasun bikainak edo berariazko talentuak antzemateko, artatzeko eta aberasteko jarduera-programak garatzea helburu duten horiek, ikasleengan ikasteko eta lorpen pertsonala eta kolektiboa izateko motibazioa pizteko. Proiektuak eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukera ere jaso ahal izango du, baldin eta egiten diren jardueren % 25 baino gehiago ez badira.

Curriculumak aberasteko proiektuak hiru ikasturtetan egingo dira. Lehenengoan, irakasleek prestakuntza jasoko dute curriculumak aberasteari, gaitasun bikainei eta askotariko adimenei buruz eta ikastetxean ikaste-prozesuetan behar desberdinak dituzten ikasleei antzematen ikasiko dute. Bigarren urtean, proiektuak ikasleenganako arreta eta ikasgelan curriculumak aberasten lagun-

duko duten metodologia aktiboen garapena izango ditu ardatz. Hirugarren urtean, proiektuaren baliozkotzea eta emaitzen ebaluazioa egingo dira, proiektuan ezarritako adierazleen arabera. Proiektuaren epea bukatutakoan, ikastetxeak beste ikastetxeei aurkeztu ahal izango die haien esperientzia «Partekatuz ikasi» modalitatearen bidez, ikastetxe tutore gisa.

2.– Ikastetxeko hezkuntza-proiektua eta hobekuntza-plana izango dute erreferentetzat hezkuntza berriztatzeko proiektu integralek –ebaluazio diagnostikoaren ondorio da ikastetxeko hobekuntza-plana–, eta Hezkuntza Sailak finkatutako oinarrizko gaitasun eta/edo ildo nagusi bati edo gehiagori helduko diote. Ikastetxeak proiektu integralaren datu teknikoak eta aurrekontua bete beharko ditu <http://www.proiektuak.net> estekan horretarako prestatu den aplikazio informatikoan, ikastetxeko hobekuntza-plana ere txertatuz.

3.– Nola hezkuntza berriztatzeko proiektu integralek hala curriculuma aberasteko proiektuek honako atalak izan beharko dituzte:

- Diagnostikoa.
- Helburu estrategikoak.
- Helburu orokorrak.
- Hartzaileak.
- Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-jarduerak.
- Aurrekontua.
- Plangintza eta gauzatzeko egutegia. Garapen-faseak eta epeak.
- Proiektua ebaluatzeko irizpideak, eta emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak.

4.– 2016-2017 eta/edo 2015-2016 ikasturtean berrikuntza-proiektu integral bat egiteko diru-laguntza eskuratu zuten ikastetxeek, 2017-2018 ikasturtean ere finantzaketa lortu nahi badute, aurreko paragrafoan aipatutako atalak adieraziko dituzte proiektua luzatzeko eskabidean, proiektuaren bigarren edo hirugarren urteari dagokionez.

5.– Hezkuntza berriztatzeko proiektu integralean eta curriculuma aberasteko proiektuek sartuta egon behar du klaustro osoak. Proiektu bakoitzak gutxienez 45 ordu izango ditu garatzeko eta gauzatzeko.

6.– Nahiz eta proiektu mota honen iraupena, hezkuntza-mailan, ikasturte bati dagokiona baino luzeagoa izan, eskatutako diru-laguntza 2017-2018 ikasturterako bakarrik izango da. Beraz, hurrengo ikasturteetan proiektuak abiarazteko laguntza ekonomikorik beharko balitz, hori egiten diren urteroko deialdietan eskatu beharko da.

7. artikulua.– Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak.

1.– Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuen helburua da ikastetxean garatzen den hezkuntza-jardueraren arloren batean ekitea, ikasturte bakar baten barruan. Heziberri 2020 Planaren esparruan, hezkuntza-berrikuntzarako prestakuntza-proiektuek ikastetxeei zeharkako gaitasunak lortzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren inguruan prestakuntza-jarduerak proposatzeko aukera ematen diete eta ikasleek eskuratutako jakintzak praktikan jartzeko eta gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik edukitik esanguratsuenak hautatzeko egoera-arazoak aztertzeko aukera eskaintzen diete.

2.– Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuek kontuan izango dute ikastetxearen hobekuntza globala, eta, hortaz, honako hauek izango dituzte erreferentzia nagusitzat: batetik, ebaluazio diagnostikotik sortzen den hobekuntza-plana eta, bestetik, Hezkuntza Sailak finkatutako ildo nagusiak. Gainera, arreta berezia jarriko dute irakatsi eta ikasteko prozesuetan eta oinarrizko gaitasunen garapenean. Gutxienez hezkuntza-etapa batean aplikatuko da eta hango irakasleek parte hartu beharko dute. Ikastetxeak hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuaren datu teknikoak eta aurrekontua bete beharko ditu <http://www.proiektuak.net> estekan horretarako prestatu den aplikazio informatikoan, ikastetxeko hobekuntza-plana ere txertatuz.

Honako atal hauek sartu behar dira barruan:

- Diagnostikoa.
- Helburu estrategikoak.
- Helburu orokorrak.
- Hartzaileak.
- Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-jarduerak.
- Aurrekontua.
- Plangintza eta gauzatzeko egutegia. Garapen-faseak eta epeak.
- Proiektua ebaluatzeko irizpideak, eta emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak.

3.– Ez da eskaerarik onartuko baldin eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak ez badira 2014-2015, 2015-2016 edo 2016-2017 ikasturteko deialdian ikastetxe berek aurkeztutako proiektuen errepikapena besterik.

4.– Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak eragiten dien irakasleen % 80 inplikatu behar da gutxienez, eta kontuan hartuko dira proiektuko ataza bakoitzean parte hartzen duten lagunak. Proiektu bakoitzak gutxienez 30 ordu izango ditu garatzeko eta gauzatzeko.

8. artikulua.– «Partekatuz ikasi» esperientziak.

1.– Irakasleak bikaintasunerako prestatzeko modu bat dira: ikastetxe batek laguntza eta orientabidea eska diezaioke ikastetxe «tutore» bati, bikaintzat jotzen diren eta eredugarriak diren praktika pedagogikoen berri izateko eta haiek gauzatzeko lehenengo pausoak emateko. Ikastetxeak interesatzen zaizkion esperientzia edo esperientziak bete beharko ditu, lehentasun-ordenan, <http://www.proiektuak.net> estekan horretarako prestatu den aplikazio informatikoan, eta «Partekatuz Ikasi» esperientzian parte hartzeko zer motibazio dituen ere adieraziko du. Ikastetxeko hobekuntza-plana ere txertatu behar du.

2.– Ez da eskabiderik onartuko baldin eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak 2014-2015, 2015-2016 edo 2016-2017 deialdian ikastetxeek berek aurkeztutako proiektuen errepikapen soila badira.

3.– Deialdi honen II. eranskinean datoz ikastetxe eskatzaileen eskura dauden «Partekatuz ikasi» esperientziak eta erreferentziazko ikastetxeak. Eskabidean, ikastetxe bakoitzak adieraziko du zer «Partekatuz ikasi» esperientzian parte hartu nahi duen; gehienez, hiru adieraziko ditu, eta bere lehentasunaren arabera ordenatuko ditu. «Partekatuz ikasi» esperientzia eskatzeko, ezinbestekoa da zentro eskatzaileak eta zentro tutorea itunpeko ikastetxe pribatuen elkarte edo federazio berekoak izatea. Ez da onartuko II. eranskina ez dauden jardueretarako eskaerarik.

4.– «Partekatuz ikasi» esperientzia baterako eskabideak gehiegizkoak badira ikastetxe «tutoreren» ahalmenerako, honako hauek izango dute lehentasuna, ikastetxe gehiagok izan dezaten metodologiaren berri: lehenik, aurrez esperientziarekin zerikusirik izan ez duten eta erreferentziazko ikastetxeekin edo prestakuntza-sareekin lotutako prestakuntza-saio eta mintegietan parte hartu ez duten ikastetxeek; Horren harira, txostena eskatuko zaio ikastetxe eskatzaileari dagokion elkarteari edo federazioari. Bigarrenik, 2017-2018 ikasturteko deialdian berrikuntzarako prestakuntza-proiektu bat egiteko finantzaketarik lortzen ez dutenek; eta, hirugarrenik, ikasle bekadunen ehunekorik handiena duten ikastetxeek. Ikastetxeek ez badute eskuratzen lehenengo adierazten duten esperientzian parte hartzeko finantzaketarik, bigarren adierazten duten esperientzian parte hartzeko diru-zuzkidura esleitzeko prozeduran parte hartuko dute, eta, ez badute eskuratzen bigarren adierazten duten esperientzian parte hartzeko finantzaketarik, hirugarren adierazten duten esperientzian parte hartzeko diru-zuzkidura esleitzeko prozeduran.

5.– «Partekatuz ikasi» esperientziak barnean hartuko dituzte garatzeko beharrezkoak dituzten prestakuntza- eta/edo berrikuntza-jarduera guztiak: bisitaldiak (hiru gutxienez ikastetxe eskatzaileari, eta bat ikastetxe «tutorera»), batzarrak, ikasgelarako sarrera, materialen eskuratzea, prestakuntza-saioak... Akordio batean, «Partekatuz ikasi» esperientzia gauzatzeko lan-egitasmoa adostu eta sinatuko dute ikastetxe eskatzaileak eta «tutoreak», III. eranskineko ereduari jarraiki. Zentro eskatzaileak egoki ikusten badu, Berritzeguneko erreferentziazko aholkularia bisitetan egotea edo «Partekatuz ikasi» esparruan egiten diren bileretara edo saioetara joatea eskatu ahal izango du.

6.– Edukiaren arabera, departamentu batek, arlo batek, hezkuntza-etapa batek edo klaustro osoak edo haren zati batek parte hartu ahalko dute «Partekatuz ikasi» esperientzietan. «Partekatuz ikasi» esperientzia bakoitzak 15 ordu izango ditu gutxienez garatzeko eta gauzatzeko.

7.– «Partekatuz ikasi» esperientzietan dagokienez, ikastetxe eskatzaileak dagokion itundutako ikastetxeen elkarteari edo federazioari txostena erantsiko du, honako hauek bilduko dituena: ikastetxe bakoitzak esperientziaren edukian egindako bidea, parte hartzen ari den proiektuen zerrenda eta parte-hartzearen egokitasunari buruzko balorazio bat, aurreko gaiak aintzat hartuz.

9. artikulua.– Baldintza orokorrak eta haien egiaztatpena.

1.– Prozeduran parte hartzeko, eskabidea behar bezala eta epean aurkeztu beharko dute ikastetxeek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, deialdi honen 11. artikuluan xedatuarekin bat, eta euren proiektuaren edo «Partekatuz ikasi» parte hartzeko eskabidearen edukia 6., 7. eta 8. artikuluetara doitu.

2.– Gainera, ezin izango dira erakunde onuradun izan honako egoeraren batean dauden erakundeak:

- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietan azaldutako egoeraren batean daudenak.

- Diru-laguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiboa edukitzea, eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta egotea, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barne.

Hori dela eta, erakunde onuradun izateko debekua dakarten egoeretan sartuta ez daudela justifikatzeko, erakundeek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute; dena dela, horrek ez du balioko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela justifikatzeko.

3.– Erakunde onuradunei diru-laguntza horiek emateko eta, bidezko denean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

4.– Diru-laguntzaren eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen erakundeari zuzenean egiazta dezan laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; izan ere, automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, diru-laguntzen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 88/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Erakunde eskatzaileak berariaz ukatu dezake baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, diru-laguntzei buruko Lege Orokorraren 22. artikuluan azaltzen den eran.

5.– Eskabideari erantsitako erantzukizunpeko aitorten baten bidez, hauek egiaztatuko dira:

– Ez dela eskuratu helburu bererako inolako diru-laguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako bitartekorik edozein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatutatik.

– Ez duela administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.

– Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela, eta ez dagoela diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. zenbakietan jasotako egoeraren batean.

– Eskabidea egin duen ikastetxeko ordezkari-organoren gorenak ezagutzen duela proiektua eta onartu egin duela.

– Proiektuaren datuak bete dituela <http://www.proiektuak.net-en>

10. artikulua.– Proiektua aurrera eramateko laguntzak.

1.– Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak proiektu integrala, curriculuma aberasteko proiektua edo hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektua martxan jartzen direla zaindu behar du; eta ikasketa-burutzak koordinatu behar du garapen guztia, edo, bestela, irakasle bat jarri behar du koordinatzaile moduan. Hori eginez gero, irakasle hori bera arduratuko da aldi behin ikasketa-burutzari proiektuaren garapenari buruzko eta egindako ekintzei buruzko informazioa emateaz, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da horrekin zerikusia duten gaiak lantzen direnean.

2.– Ikastetxeak, bere burua antolatzeko duten autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahal ditu proiektuetan egiten duten lanera, hala eskola-orduen kopurua nola horien banaketa; betiere, kasuan kasuko ikasturte-hasierako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.

3.– Proiektu integral bat, curriculuma aberasteko proiektu bat edo hezkuntza berriztatze prestakuntza proiektu bat onartuta duten ikastetxe guztiek erreferentziako aholkulari bat izango dute gutxienez Berritzegunean, eta hura arduratuko da, ikastetxean proiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonarekin batera, proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-lanak egiteaz. Gainera, curricu-

luma aberasteko proiektu bat onartuta duten ikastetxeetako irakasleek lehentasuna izango dute Berritzegune Nagusiak esparru horretan antolatzen duen prestakuntzan parte hartzeko.

11. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskabideak baliabide elektronikoz aurkeztu beharko dira euskadi.net-en, <https://www.euskadi.net>, egoitza elektronikoaren bitarteko elektronikoen bidez, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean biharamunetik kontatzen hasita. Ikastetxe bakoitzak eskaera bat aurkeztu ahalko du, hezkuntza-bikaintasunerako prestakuntza-proiektuaren modalitate bakoitzeko. Modalitate bererako eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, horiek guztiak gaitzetsiak izango dira.

2.– Eskaera-eredua egoitza elektroniko honetan egongo da eskuragarri: https://www.euskadi.net/dirug_laguntza/2017/bikaintasunerantz/y22-izapide/es. Interesa duten ikastetxeek 1. artikuluan jasotako hiru modalitateetako edozein jasotzen duen eskabidea aurkeztu ahalko dute.

3.– Zentro eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Prozedura osoan zehar, pertsona eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

Eskabidea egin ostean, hura onartzeko edo ukatzeko ebazpena eman arte egin beharreko izapide guztiak <https://www.euskadi.net/misggestion-es> bidez egin beharko dira.

4.– Eskabideak guztiz beteta ez badaude, eskabidea egin duen ikastetxeari eskatuko zaio hamar eguneko epean bete gabe utzitakoa betetzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, eta, hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela ohartaraziko zaio.

12. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritza kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak.

13. artikulua.– Ebaluazio Batzordea.

Ebaluazio-batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, gizon eta emakumeen parte-hartze orekatuarekin, gutxienez kideen % 40 sexu bakoitzekoak direlarik, eta hauek osatuko dute batzorde hori:

– Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Irakasletoa Hobetzeko Zerbitzuaren arduraduna, batzordeburu.

– Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde-burutzen arduradunek edo haiek izendatutako ordezkariak.

– Berritzeguneko zuzendari batek, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatuta.

– Irakasletoa Hobetzeko Zerbitzuko teknikari batek, idazkari-lanak egingo dituen, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatuta.

14. artikulua.– Eskabideak hautatzea.

1.– Proiektuak aukeratzeko, I. eranskinean eskaerak baloratzeko finkatzen den baremoa hartuko da kontuan. Ukatu egingo dira gutxienez 12 puntu lortzen ez dituzten proiektuak.

2.– Proiektuak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak eskatu ahalko dizkio laguntza-zerbitzuei.

3.– Ebaluazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari helaraziko dizkio. Onartzeko proposatzen diren berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak eta «Partekatuz ikasi» esperientziak adieraziko ditu proposamenean, baita bakoitzari ematea proposatzen duen zenbatekoa ere. Gainera, baztertutako eskabideen zerrenda sartuko da, haiek baztertzeko arrazoiak aipatuta.

15. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak, ebaluazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hileko epean emango du deialdiari buruzko ebazpena.

2.– Ebazpena modu elektronikoa jakinaraziko zaizkie interesa duten ikastetxeei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da denek jakin dezaten.

3.– Epe horretan jakinarazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikulua ondo onartutako.

4.– Ebazpenak ez du agortuko administrazio-bidea, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio hezkuntza-sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena elektronikoki jakinarazi, eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Erakunde onuradunei diru-laguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

16. artikulua.– Ziurtagiriak.

Proiektuan parte hartzen duen irakasle bakoitzak proiektua garatu eta gauzatzeko jarritako orduen % 80 gainditzen bada, eta proiektu horren egikaritze-memoriak balorazio positiboa jasotzen duen bakoitzean, parte-hartzaile bakoitzari ofizioz eta banaka ziurtagiriak izango dizkio proiektu mota bakoitzerako ezarritako orduak: 45 ordu, proiektu integral bat edo curriculumak aberasteko proiektu bat bada; 30 ordu, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektu bat bada, eta 15 ordu, «Partekatuz ikasi» esperientzia bat bada. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, irakasle bakoitzak gehienez ere 90 orduren ziurtagiria jaso ahal izango du Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako deialdien barruan egindako prestakuntza-proiektuengatik.

17. artikulua.– Diru-laguntzen bateraezintasuna.

Diru-laguntza hauek bateraezintasunak dira helburu bererako beste edozein laguntzarekin, nahiz iturri publikoetakoak nahiz pribatuetakoak.

18. artikulua.– Hautatutako ikastetxeen berariazko betebeharrak.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun diren ikastetxeek honako betebeharrak hauek dituzte Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotakoetatik, eta, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 18. artikuluko 3. eta 4. atalekin bat eginez,

finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egiteko neurriak hartzeari buruzkoa barne hartuta:

a) Esleitutako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, hamar eguneko epean –deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera–, ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Proiektua Ikastetxeko Urteko Planean sartzea.

c) Zertarako ematen den diru-laguntza, horretarako erabiltzea; hau da, onartutako berrikuntza-proiektu integral, curriculuma aberasteko proiektua, hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektua edo «Partekatuz ikasi» esperientzia eta bertako jarduerak egiteko erabiltzea.

d) Tokiko Berritzegunearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzarekin kolaboratzea proiektuaren eta/edo esperientziaren «Partekatuz ikasi» aholkularitza, ebaluazio, jarraipen eta kudeaketa lanetan.

e) Ekonomia Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak betetzeko eskatutako informazio guztia bidaltzea, deialdi honen kontura jasotako dirua dela eta.

f) Proiektua eta/edo esperientzia «Partekatuz ikasi» gauzatu izana justifikatzeko agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztea.

g) Berrikuntza-proiektu integralak edo curriculuma aberasteko proiektuak egiteko dirua esleitzen zaien ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzarekin eta EHUrekin elkarlanean arituko dira, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezten laguntzeko (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetak praktiketako ikasleak onartzea, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterreko praktiketako ikasleak ere).

19. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Ikastetxe onuradunei eman beharreko diru-laguntzak bi epetan ordainduko zaizkie:

a) Lehendabizikoan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 67; zenbateko hori esleipen-ebazpena jakinarazi ondoren ordainduko da, berariazko ukapenik egon ezean.

b) Bigarren igorpena 2018an egingo da, hurrengo paragrafoan aurreikusitako baldintzen arabera emandako diru-laguntza justifikatu ondoren egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoan.

2.– 2018ko ekainaren 15a baino lehen, proiektuaren garapenari eta haren ebaluazioari buruzko txosten bat eta proiektuak eragindako gastuen justifikazio-kontu erraztua aurkeztu beharko dute zentro onuradunek <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak> webgunean.

Proiektuaren garapen eta ebaluazioari buruzko txostenean, gainera, honako hauek jasoko dira inaktuaren adierazle gisa: landutako materialen kopurua eta edukia; zenbat ikaslerengan izan duen eragina; egindako prestakuntza-jardueren kopurua eta edukia; horietan parte hartu duten irakasleen kopurua eta ehunekoa, eta ea, prestakuntzaren barruan, praktikaren bat ezarri den ikasgelan.

Justifikazio-kontuan jarduerak eragindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua jasoko da eta zerrendan hauek zehaztuko dira: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenba-

tekoa, data eta, ordainduta badago, noiz ordaindu zen. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera eman bada, gertatutako desbiderapenen berri ere eman beharko da.

3.– Hezkuntza Sailak justifikazio-kontuan aipatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatuko die proiektu integralak edo curriculumak aberasteko proiektuak aurkeztu dituzten hiru zentro onuraduni (bat lurralde bakoitzeko) eta berrikuntzarako prestakuntza-proiektua aurkeztu duten zortzi ikastetxe onuraduni (bi Arabakoak, hiru Bizkaikoak eta beste hiru Gipuzkoakoak), diru-laguntza egoki aplikatzen dela arrazoitzen duen ebidentzia jasotzeko.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatuz gero, jakinarazi egin behar da eta diru-laguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da, betiere diru-laguntzaren onuradun izateko arauan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Proiektuari egoztekoak diren justifikatutako gastuak txikiagoak badira emandako diru-laguntzaren zenbatekoa baino, laguntza hori murrizteko ebazpena emango da eta, hala badagokio, sobera emandako zenbatekoa itzultzeko eskatuko zaio ikastetxe onuradunari.

21. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion Berritzeguneko batzorde pedagogikoak txosten bat egingo du bikaintasuneranzko aukeratutako prestakuntza-proiektuen garapenaren gainean. Txosten horiek Irakaslegoaren Hobekuntzarako Zerbitzuari eta Hezkuntza Berriztatze Lurralde-burutzari igorriko zaizkio, eta ikastetxe bakoitzaren eskura egongo dira bertan.

2.– Baldin eta ikasturtean zehar gorabeheraren bat gertatzen bada hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuetako edozeinen garapenean, eskualdeko Berritzeguneko zuzendaritzak Lurralde-burutzari jakinarazi eta egoki irizten dion txostena bidaliko dio Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari, Zuzendaritza horrek deialdi hau egoki betetzeko bidezko neurriak hartu ahal izan ditzan.

3.– «Partekatuz ikasi» esperientzietan «tutorearena» egiten duten ikastetxeek esperientzien bilakaerari buruzko txosten bat egingo dute ikasturte bukaeran, eta ikastetxe bakoitzak izandako parte-hartzea ebaluatuko dute. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari helaraziko diote txostena, 2018ko ekainaren 15a baino lehen.

4.– Hezkuntzako Ikuskaritzak ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan kontrolatuko du zenbateraino betetzen diren hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektu onartuak; proiektu horiek ikastetxeko urteko planean jaso behar dira, eta, hala ez bada, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari jakinaraziko zaio.

22. artikulua.– Ez betetzearen araubidea.

1.– Laguntzen entitate onuradunak beti egongo dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargura egindako laguntza publikoak jasotzeagatik ezarritako arau-hausteen araubidearen mende, eta, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikulua ezarriz, esleitutako eta jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharra edukiko dute, ezar daitezkeen legezko interesez gain, atzerapenena barne hartuta, honelakoetan:

a) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. atalean edo Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluetan diru-laguntzak itzultzeko jasotzen diren arrazoiren batean egoteagatik.

b) Erakunde onuradunak diru-laguntza ez erabiltzea eskatu zen eta eman zen berariazko xederako.

c) Ez gauzatzea diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera.

d) Ez justifikatzea interesa erakutsi zuen xede jakinetarako aplikatu izana.

e) Ez betetzea, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan ezarritako betebeharrak (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), agindu honetan ezarritakoak edo emakida-ebazpenean ezarritakoak.

2.– Dirua itzultzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura beteko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira. Hori gorabehera, bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratu ahal izango dira. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

23. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak» izeneko fitxategian sartuko dira, 19. zenbakiaz, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan aurreikusi ez den guztian, prozedura-arloari dagokionean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea ezarriko da.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2017ko maiatzaren 2a, asteartea

I. ERANSKINA

ESKAERAK EBALUATZEKO BAREMOA

1.– Proiektua ikastetxeko hobekuntza-planaren ezaugarrietara egokitzea:	13 puntu, gehienez
1.1. - Proiektuaren eta hautemandako beharriaren arteko lotura.....	2 puntu, gehienez
1.2.– Diziplinarteko planteamendua garatzea.....	2 puntu, gehienez
1.3.– Proposatutako jardueren ekarpenak, egin beharreko aldaketa metodologikoetarako.....	2 puntu, gehienez
1.4.– Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak hobekuntza-planaren eremu hauekin duten lotura: curriculum eta metodologia; antolamendua eta funtzionamendua; komunitatea (ikastetxearen norabidea, bizikidetz...) eta garapen profesionala edo prestakuntza...	2 puntu, gehienez
1.5.– Zentroko irakurketa-plana egiteko eta ezartzeko neurriak	5 puntu gehienez
2.– Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea:	6 puntu, gehienez
2.1.– Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuen argitasuna eta zehaztasuna	Puntu 1, gehienez
2.2.– Zer lotura duen diziplinarteko planteamenduen bidez oinarritzko gaitasunak garatzearekin	2 puntu, gehienez
2.3.– Elementu globalizatzaileak sartzeta, kontuan hartzen dutenak irakasleen, ikasleen eta eskola-komunitateko beste kide batzuen inplikazioa	Puntu 1, gehienez
2.4.– Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak zehaztea eta zuzenean aplikatzea ikastetxearen funtzionamenduan.	Puntu 1, gehienez
2.5.– Epe erdirako ibilbide estrategiko bat zehaztea	Puntu 1, gehienez
3.– Proiektuaren bideragarritasuna, aplikagarritasuna eta kudeaketa:	10 puntu, gehienez
3.1.–Proiektuan proposatutako jarduerak garatzeko aurreikusitako antolamendua	Puntu 1, gehienez
3.2.– Proiektuaren epeak eta faseak zehaztea: inplikaturako irakasleen arteko lankidetzak-uneak, eta ikastetxearen ohiko dinamikarekin duen erlazioa.....	Puntu 1, gehienez
3.3.– Koordinazio-egiturak ezartzea eta ardurak banatzea	Puntu 1, gehienez
3.4.– Proposatutako jardueren prestakuntza- eta berrikuntza-alderdiak argiki bereiztea	Puntu 1, gehienez
3.5.– Zientzietako eta matematikako material didaktikoa (digitala edo ez-digitala) sortzea	5 puntu gehienez
3.6.– Proiektua garatzeko eskualdeko Berritzegunearen prestakuntza-eskaintza eta erakundeen beste prestakuntza-eskaintza batzuk erabiltzea	Puntu 1, gehienez
4.– Emaitzak ebaluatzeke plana:	4 puntu, gehienez
4.1.– Ebaluatzeke irizpideak definitzea, eta prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuak betetzen diren edo ez agerian jartzen duten adierazleak definitzea	2 puntu, gehienez
4.2.– Ebaluatzeke tresnak eta uneak zehaztea	2 puntu, gehienez
5.– Aurrekontua justifikatzea:	2 puntu, gehienez
5.1.– Eskatutako aurrekontua koherentea izatea lan-egitasmoarekin eta ikastetxeko baliabideekin	Puntu 1, gehienez
5.2.– Eskatutako dirua nola banatuko den azaltzea	Puntu 1, gehienez
6.– Aukera- eta eskubide-berdintasuna	5 puntu, gehienez
6.1.– Ikasleen % 60 baino gehiago bekadunak izatea	5 puntu
6.2.– Ikasleen % 45 eta % 60 artean bekadunak izatea	2 puntu
6.3.– Ikasleen % 30 eta % 45 artean bekadunak izatea	Puntu 1
Puntuak, guztira:	40 puntu

II. ERANSKINA
«PARTEKATUZ IKASI» ESPERIENTZIAK

1 ESPERIENTZIA

Izenburua	Sormena (Haur Hezkuntzako 2. Zikloan)
Edukia	<p>Ikasturte honetan Arno Stern-en metodologian oinarritutako lantegia jarri dugu martxan. Birziklatutako materialarekin sormena landu nahi dugu. Hau da, bultzatu nahi dugu umeen sormen gaitasuna. Bere irudimena lan egiten jartzea nahi dugu.</p> <p>Ez dugu artea egin nahi, baizik eta jolastu, material honekin esploratu, jarduera honen bitartez bere pentsamenduak, esperientziak, desirak eta emozioak zabaldu ahal izateko.</p> <p>Helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Toki eta denbora bat eskaini sormen gaitasuna garatzeko.</i> 2. <i>Toki eta denbora bat eskaini konfiantzarekin sentitzeko eta bere burua baieztatzeko, eredurik gabe adierazteko.</i> 3. <i>Alaitasuna, jakin-mina, ilusioa, urguilua sorrarazten dituzten emozio positiboak sustatu.</i> 4. <i>Saihestu emozio negatiboak, adibidez, lotsa edota beldurra.</i> 5. <i>Jolastu, esperimintatu, egin (edo ez)</i>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Santa María HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	http://www.marias-gasteiz.org/es/

2 ESPERIENTZIA

Izenburua	Otoizlekua Haur Hezkuntzako zikloan
Edukia	<p>Esnatze-erlijiosoan errazten da otoitzaren bitartez eta Jesusekin topaketa ospatzeko esperientziak biziarazten ditugu. Horrela, hezkuntza integrala lortzen dugu, pertsonalitatearen alde guztiak landuz, Esperientzia hauek leku prestatu jakin batean egiten dira.</p> <p>Hilabeteetan bitan talde bakoitzak otoiztegira doa bere tutorearekin eta pastoraleko arduradunarekin, saioa zuzentzen duenak, lagunduta.</p> <p>Saio bakoitzak momentu jakin batzuk ditu. Sekuentzia logika bat segitzen du, elementu jakin batzuk daude, baina ez dira modu zorrotz batean errepikatzen.</p> <ol style="list-style-type: none"> I. Sarrera: sartu baino lehen, umea prestatzen da, lekua duen garrantziaren kontzientzia hartzen du, isiltasuna eta baretasuna lantzen dira. Isilik, banan-banan, eta ordena jakin batean sartzen dira otoiztegira, aurretik prestatutako lekua, eta esertzen dira. II. Agurra: Jesusekin topatzen gara gelan dauden elementuen bitartez: marrazkietan, argizarian, Mariaren ondoan, Biblian, gure bihotzean... eta bere presentzian jartzen gara. III. Bihotzeko otoitza: begiak ixtera eta gorputza erlaxatzera gonbidatzen ditugu, eta zenbait esaldi motzak errepikatuz otoitzean sartzen gara, Jesusengana hurbiltzen gara. IV. Hitzaren entzuten dugu: Biblian eguneko Hitza irakurtzen dugu. Gero komentatzen dugu eta hitz garrantzitsu batzuetan jartzen dugu arreta. V. Eskerrak ematen ditugu bizi izan dugun momentuagatik eta, joan aurretik, klasean landutako abestiren bat abesten diegu Jesusi edo Mariari. VI. Modu ordenatuan ume bakoitzak muxua ematen dio Jesusi edota Mariari eta poliki-poliki ateratzen dira otoiztegitik.
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Santa María HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	http://www.marias-gasteiz.org/es/

3 ESPERIENTZIA

Izenburua	Antzerkigintza ingelesez (Haur Hezkuntzako 2. Zikloan)
Edukia	<p>Antzerkiaren bidez ingelesa ikasten da eta, jarduera honen bitartez, elkarlana eta adimen anitzak garatzen dira.</p> <p>Lau antzerki landuko ditugu (adibidez, Peter Pan, El libro de la selva, Edurnezuri, El mago de Oz) eta gure ikasleen mailara (5-6 urte) egokitzen ditugu. Musika eta koreografia aukeratzen ditugu. Jarduera hauek, eguneroko errutinen bitartez lan egin ahal ditugu, erlaxazioa, dantza, adierazpena, mugimendua, talde-lana, norberarengan eta besteengan konfiantza, eta inteligentzia anitzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adimen linguistikoa: lengoaiaren bidez ingelesezko esaerak eta emozioak adierazi, eta noski, testua, abestiak eta poesiak. - Adimen logiko-matematikoa: erabiltzen ditugun jokoetan edo abestien erritmoetan. - Adimen naturalista: antzerki-joko askotan animaliak daude, haien mugimendua, soinua, portaerak imitatzen ditugu - Adimen bisuala eta espaziala: askotan espazioak eta objektuak imajinatu behar dituzte. - Adimen musikala: antzerkian, musika funtsezko elementua da egoera eta sentipen jakin batzuk adierazteko. - Adimen Kinestesikoa, gorputz adimena: Antzerkian gehien garatzen den adimena. Ideiak eta emozioak adierazi, norberaren gorputza erabiltzea, eta lan egin gorputza eta adimenarekin. - Adimen inter pertsonala eta intra pertsonala: ariketa batzuetan adierazpen propioa lantzen dugu eta besteetan besteekiko interakzioa.
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Santa María HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	http://www.marias-gasteiz.org/es/

4 ESPERIENTZIA

Izenburua	Irakur-laguna eta mintza-laguna
Edukia	<p>Jarduera hau irakurketa bultzatzeko proiektua da. Aldi berean, euskararen erabilera sustatu nahi dugu.</p> <p>DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek, hamabostean behin, LHko 3. eta 4. mailako ikasleekin irakurtzen dute. Ikasle nagusien betebeharra irakurketa dinamizatzea da, zalantzak argitu eta ulermena ziurtatu.</p> <p>Une berean, euskararen erabileran gabeziak ikusita, gai zehatz batzuen inguruan solasaldia sortzea da helburu. Honekin batera, adin desberdineko ikasleen arteko harremanak sendotzen dira.</p> <p>Helburuak</p> <p>1- Irakurketa bultzatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motibazioa eta interesa sustatzea. - Irakurketa irakurtzen hasi aurretik, dedukzioak eta aurrehipotesiak egitea. - Ozen eta garbi irakurtzea, intonazio egokia erabiliz. - Lexiko berria ezagutzeko premia sustatzea - Irakurritakoa ulertzea <p>2- Euskararen erabilera sustatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Solaskidearekin interesguneko gaien inguruan aritzea - Ahozko adierazpideetan hitz eta esamolde egokiak erabiltzea <p>3. Adin desberdineko ikasleen arteko harremanak sendotzea</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Paula Montal HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	<p>www.escolapiasvitoria.com Teléfono 945242942 pmontalvitoria@fe-escolapias.org</p>

5 ESPERIENTZIA

Izenburua	TAC Proiektua - Motibazioari ekin
Edukia	<p>Helburua:</p> <p>IPAD-en bitartez metodologia aldatzeko proiektua hasteko beharrezkoak diren pausoak erakutsi.</p> <p>Edukia:</p> <p>IPAD jartzeko prozesuan behar-beharrezkoak diren puntu nagusiak azaldu: materialak, metodologiak, azpiegitura, irakasleen prestakuntza, familiak, gelak bisitatu baita proiektu honen bitartez ikasleen esperientziak ezagutu ere.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Paula Montal HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	<p>www.escolapiasvitoria.com Teléfono 945242942 pmontalvitoria@fe-escolapias.org</p>

6 ESPERIENTZIA

Izenburua	APP ordua: IPAD eskolaratzeko irakaslegoaren barne formakuntza
Edukia	<p>Helburua:</p> <p>Irakaslegoaren barruan, barne kudeaketa eta gai ezberdinetan aritzeko beharrezkoak diren app-ak landu, digital tresnak erabilia.</p> <p>Edukia:</p> <p>Aldaketa metodologiko honetan denon inplikazioa bilatzeko irakaslegoaren antolakuntza ezagutu; Eskolako OLE-a, talde antolaketa, lekuak eta dedikazio denborak, landutako edukiak,....</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Paula Montal HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	<p>www.escolapiasvitoria.com Teléfono 945242942 pmontalvitoria@fe-escolapias.org</p>

7 ESPERIENTZIA

Izenburua	Neurozientzia heziketan aplikatua
Edukia	<p>Memoria, arreta, motibazioa... garunaren ikasteko era kontuan harturik erakustea. Heziketaren pertsonifikaziorako unitate didaktikoak egitea.</p> <p>Ikastetxean burutu diren idazmen-irakurmen eta elebitasunarekin lotutako ikerketen ondorioei buruz informatzea.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Carmelitas-Sagrado Corazón HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	http://www.sagradocorazoncarmelitas.com/

8 ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen ikasi klasearen barruan
Edukia	<p>Irakasleek beren ikasleei taldean ikasten irakats diezaieten programa didaktikoa da IK/KI.</p> <p>Programa honek ikasleek, zeinahi direla ere berorien ezaugarri pertsonalak eta hezkuntza-premiak, beren eskola errendimendua hobetzea eta garapen pertsonal handiagora iristea lortzen du, batez ere, elkarriketarako, elkarrekin bizitzeko eta solidario izateko ahalmenari dagokionez, hain zuzen ere, berdinen arteko interakzioak indartzen eta hobetzen dituelako, ikasketajardueretan ikasleen parte-hartze aktiboagoa errazten duelako eta ikasketarako zein garapen pertsonalerako «giro» aproposa sustatzen duelako.</p> <p>Esperientziaren garapena:</p> <p>Hasieratik programa hau osatutako hiru eremu landuko ditugu</p> <p style="padding-left: 40px;">A esku-hartze eremua: taldearen kohesioa, B esku-hartze eremua: talde-lana baliabide gisa eta C esku-hartze eremua: talde-lana edukia gisa.</p> <p>Gure 5 urteko esperientziak irakatsi digu hiru eremu hauek bananduta lantzeak irakasleei nekea eta nahasketa eragiten diela. Formakuntzaren hasieratik zein pausu eman eta etorkizunean noraino heldu behar diren jakiteak segurtasuna eta lasaitasuna bermatuko die irakasleei.</p> <p>Arreta hiru helburutan jarriko dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldearen kohesioarekin loturiko jarduerak burutuko ditugu, pixkanaka, gela bateko ikasleek talde-kontzientzia har dezaten eta denborarekin ikasketa-komunitate txiki bat bilaka daitezten. (A esku-hartze eremua) • klasearen barruan egitura sinpleen aplikazio eta irakaskuntza (B esku-hartze eremua) • Talde-lana irakastea: talde-koaderno eta talde-plana (C esku-hartze eremua)
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	direccion.inmaculada@ficabetxuko.es http://colegioinmaculadaabetxuko.blogspot.com.es/

9 ESPERIENTZIA

Izenburua	Bikoteka arrazoitzen
Edukia	<p>Elkarren arteko tutoretzan oinarritua dagoen proiektua da.</p> <p>Berdinen arteko tutoretza matematikako buruketak elkar lanean ebazteko programa da. Buruketen ebazpena beste perspektibatik lantzen du, erantzunen arrazoinamenduan eta argudioetan enfasi berezia jartzen du.</p> <p>Ikasleek oso jarraibide zehatzak dituzte planteatzen zaizkie arazo matematikoak ebazteko.</p> <p>Planteatzen diren buruketak gure ikasleen inguru hurbilean oinarrituak daude.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Ama Guadalupekoa HLBHIP – Hondarribia (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	http://www.amaguadalupekoa.net/es

10 ESPERIENTZIA

Izenburua	Aberaste kurrikularrak gaitasun handiko ikasleentzat
Edukia	<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaitasun handiko ikasleen curriculum nola aberastu eta egokitu. • Gaitasun handiko ikasle bakoitzak bere bakarkako plana izatea. • Teknologia berriak erabilia, proiektuen bidezko metodologia erabiliaz ikasle hauen beharrei erantzuna eman. <p>Proposatutako ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaitasun handiko ikasleen arloz arloko edukien egokitzapenak edukiak kenduz, gehituz edota aldatuz. • Gaitasun handiko ikasleen ebaluazio irizpideen egokitzapenak. • Gaitasun handiko ikasleen jardueren arloz arlo.
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS San Luis-La Salle HLBHIP – Donostia (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	http://www.sanluislasalle.com/

11 ESPERIENTZIA

Izenburua	Diziplina anitzeko proiektuak DBHn
Edukia	<p>Proiektuak lan egiteari, kooperatiboki, batez ere diziplinartea medio, beharrezkoa deritzogu gaur egungo hezkuntza beharrei erantzun ahal izateko.</p> <p>Diziplina anitzeko proiektuetan lan egitean ikasleari ikerketa edo garapen proiektu bat proposatzen zaio, beregain lan egiten ahalbidetuko dio gogotsu parte hartuz bere ikastaldian ezagutzak, trebetasunak eta abileziak partekatuz.</p> <p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikaslearen motibazioa eta sormena handitu. • Konpetentzia digitala landu eta TICak erabili. • Giza trebeziak indartu. • Irakaskuntza esanahiduna • Diziplina anitzean lan egin. • Eguneroko egoerei-arazoei aurre egin. <p>Lan metodologia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gel aedo maila talde heterogeneotan sailkatu (lauko taldeak) zeinetan ikasle bakoitzak proiektuan izango duen rola zehaztuta dagoen (koordinatzailea, idazkaria, moderatzailea, TIC arduraduna). Horretarako talde kohesiorako teknikak erabili ohi dira. • Canvas eran aurkeztuko da egingo den proiektua: Canvas hiru zutabean antolatuta dago. Erdian proiektuaren oinarria dator: azken emaitza, emaitza horretara iristea ahalbidetzen dituzten zereginak eta emaitza hori plazaratzeko egingo dena. Ezkerreko zutabean ikastaldi proiektua, curriculum konpetentziak, irakaskuntza estandarrak eta ebaluazioaren arteko lotura jasoko dugu. Azkenik, eskuineko zutabean, proiektuaren egitura zehaztuko dugu, beharrezkoak diren baliabide, TIC, talde eta gelaren kudeaketaren bitartez. • Proiektua gauzatu. Zereginak bete arazoen ebazpena metodologiaren urratsak jarraituz. <ul style="list-style-type: none"> -arazoa identifikatu -helburuak zehaztu -estrategiak esploratu -aritu -emaitzak ebaluatu
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPES Ntra. Sra. De Azitain BHIP – Eibar (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	azitain@lasalle.es http://www.lasalleeibar.com

12 ESPERIENTZIA

Izenburua	Irakurketa eraginkorra lantzeko estrategiak
Edukia	<p>Argi dugu irakurketa ezaugarri askotarako giltza dela eta hezkuntzako etapa guztietan ikasteko tresnarik potoloena dela. Baita edonoren etengabeko ikaskuntzarako tresna.</p> <p>Irakurtzea idatzizko komunikazioaren borondatezko ekintza da non irakurleak testu bat deskodetu egiten duen.</p> <p>Irakurketari buruz hitz egiten dugunean, irakurtzeko bi era desberdin kontuan hartzen dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Isileko ideobisuala: begiekin irakurtzean datza. Irakurleak arreta, pertzepzioa, oroimen bisuala eta ulermeneko prozesuak erabiltzen ditu. ERABILI ETA ERAKUTSI DUGUNA. - Ahozkotasuna ozenki: deskodetzeko irakurketa, gainerakoentzat irakurri. Irakurleak arreta, pertzepzioa, oroimen fonetiko eta ahozkotasuneko prozesuak erabiltzen ditu. <p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurmen eta ahozkotasuneko ulermena hobetu. • Irakurketarekiko interesa handitu. • Eskola errendimendua hobetu. <p>Metodologia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurketarako berariazko materialak etapaka eta hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa): irakurketa jokoak, irakurketa estrategiak... • Irakurketa bera osatzen duten baliabide desberdinen entrenamendua: ulermena, gaitasun bisuala, hiztegia, esaldi eta testuen egitura, memoria, irakurketa ozena. • Irakurketa ozena egiteko materialak Lehen Hezkuntzan. Eleva programa erabiltzen da, mailaka sailkatuta, zailtasun desberdineko ariketaz osatua eta kompetentzia honek lantzen dituen gaitasunak: etenaldiak, intonazioa, erritmoa, intentsitatea, ahoskuntza, ahoskera eta amasketa. • Havilect, irakurketa ona egiteko erabili behar diren gaitasunak entrenatzeko informatizatutako programa da: eremu bisuala handitzea, finkapenen gutxitzea, informazioa azkar topatzea, oroimen bisuala, zentzuaren aurre hartzea,...
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIP LA SALLE-ISASI HLHIP – Eibar (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	isasi@lasalle.es http://www.lasalleibar.com/eu

13 ESPERIENTZIA

Izenburua	Haur Hezkuntzan proiektuka lanean
Edukia	<ul style="list-style-type: none"> • Haur Hezkuntzako proiektuen ezaugarriak ezagutu <ul style="list-style-type: none"> - Esanguratsuak: Umeen ezagutzak jasotzen dira. - Globalizatuak: Arlo ezberdinak koordinatu eta landu egiten dira - Gidatuak: Irakasleak gidatu egiten du. - Parte-hartzaileak: Denok ikasle, irakasle, gurasoak... • Proiektuen estrukturak sakondu <ul style="list-style-type: none"> - Helburuak / Gaitasunak - Ekintzak - Ondorioak • Berezko proiektua sortu <p>Ikastetxe tutorizatuarekin beraien proiektuak sortzen egingo dugu lan. Horretarako gure esperientzia beraien errealitatera egokituko dugu.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS La Salle-Berrozpe HLBHIP – Andoain (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	zuzendari@lasalleberrozpe.com http://www.lasalleberrozpe.eus/web/eu

14 ESPERIENTZIA

Izenburua	Proiektuak eta lankidetzako ikaskuntza fusionatzea
Edukia	<p>Lehen Hezkuntzako maila guztietan, diziplinarteko proiektuak egiten ditugu, eta, horretarako, lankidetzako ikaskuntzako egiturak, dinamikak eta taldeko plana aplikatzen ditugu.</p> <p>Diziplinarteko proiektu horietan, arloetan proiektuak dituen jarduerak garatzeaz gainera, gure helburuetako bat da lankidetzako ikaskuntzaren metodologian sakontzea, mailaz maila.</p> <p>Lankidetzako ikaskuntzaren metodologiaren eremuan, elkar ezagutzeko eta taldea planifikatzeko eta taldearen kohesiorako dinamikak ditugu martxan. Halaber, taldearen ebaluazioa egiteko ahalegina ere egiten dugu.</p> <p>Prest gaude beste ikastetxe batzuei gure esperientziaren eta ikasi dugunaren berri emateko.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS La Salle-Berrozpe HLBHIP – Andoain (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	zuzendari@salleberrozpe.com http://www.salleberrozpe.eus/web/eu

15 ESPERIENTZIA

Izenburua	Gizaldi arteko programa: Iraurgi Ikastetxea – San Martin Egoitza (Azpeitia)
Edukia	<p>1. <u>Sarrera</u> Iraurgi Ikastetxeak eta San Martin Egoitzak 2008-2009 ikasturtean proiektu bat jarri zuten abian. Ikastetxeak eta egoitzak betidanik izan dute gertuko harremana eta ekintza bateratu batzuk beti egin izan dituzte. Ekintza hauei ordea, nolabaiteko forma eman nahian proiektu batean barneratzea erabaki zen, GIZALDE ARTEKO PROIEKTUA hain zuzen ere.</p> <p>2. <u>Oinarriak</u>: “Zergatik gizaldi arteko proiektu bat?” Gaur egungo gizarteak eta honek dituen arazoak ez dira lagungarriak gizaldien arteko harreman egoki bat bultzatzeko. Honez gain, esan behar dugu gabezi honek ez duela asko laguntzen norbere garapenean ezta garapen historikoan ere.</p> <p>Adineko pertsonak auto-estimu baxu eta bakardade handiarekin sentitzen direla jabetuta eta, gazteek ezagutza kulturala eta historikoa galtzeko arriskua dagoela ikusten dugunez, proiektuaren izenak adierazten duen moduan gizaldi arteko egitasmoa aurrera daramagu 2008-2009 ikasturtetik.</p> <p>Kooperazioa da proiektuaren oinarri nagusia eta, hainbat arrazoi direla eta aukeratu zen proiektua. Adineko pertsonen dagokionez beraien ezagutza eta esperientziak ondoren datozenei azaltzeak, horrek beraiengan baliagarritasun sentimendua sortzea lortu duelako. Ikasleei dagokionez berriz ezagutza eta esperientzia berriak jasotzea eta ekintza desberdinak egitea.</p> <p>Alabaina proiektu honekin harreman berezi bat sortu nahi da, non onuradunak adineko pertsonak ez ezik ikasleak ere izango diren.</p> <p>3. <u>Proiektuaren kokapena</u> Kokapenari dagokionez proiektuak barneratzen dituen ekintzak leku desberdinetan burutuko dira; San Martin egoitzan, Iraurgi Ikastetxean bertan, eta herriko hainbat leku esanguratsutan, hala nola, Soreasuko Sebastian Parrokian, San Agustin Kulturgunean, Trenaren museoan, etab.</p> <p>4. <u>Parte hartzaileak</u> Ikasleen aldetik Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek hartuko du parte eta, datorren urteetarako D.B.Hko ikasleen parte hartzea ere aurreikusten dugu. Adineko pertsonen dagokionez, San Martin Egoitzako egoiliarak izango dira ekimen honetako beste partaideak. Egoitzan bertan burutuko diren ekintzetan egoiliar guztiak parte hartuko dute, ez ordea egoitzaz kanpoko ekintzetan, izan ere hauetan gorpildun aukiaz edo beraien autonomia fisikoaz baliatzen direnak soilik parte hartuko dute.</p> <p>5. <u>Helburuak</u> Programa honen helburu nagusia, belaunaldi desberdinen, ikasle eta aitona-amonen, arteko harremanak indartzea eta aldi berean parte hartzaile guztientzat onurak lortzea da.</p> <p>Epe motzerako helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Partaide diren ikasle eta adindunentzat gizarte rol berriak eta ikuspuntu berriak ezartzea. ▪ Jarrituak ez diren eta familia-loturarik ez duten bi belaunaldiren parte hartzea ▪ Belaunaldi zahar eta gazteen arteko ezagutza eta elkar-ulertzea bultzatzea, baita bien auto-estimua hobetzea ere. ▪ Egoitzen zergatia ikustea ▪ Ikasleen nortasuna aberastea baloreak zainduz eta errespetatzen ikasiz. ▪ Hitz egiten, jolasten eta entzuten ikastea.
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Iraurgi HLBHIP – Azpeitia (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	https://www.iraurgi.eus/es/

16 ESPERIENTZIA

Izenburua	Konfiantzaren Pedagogia
Edukia	<p>XX. mendeko korrante psikologikoak hartu eta euren sintesi bat egin ondoren planteatutako pedagogia da, hau da, Teoria zientifiko eta enpirikoetan oinarritutako pedagogia. Gaur egungo hezkuntzan hainbat parametro aldatzera dakar eta horietako bat, ikasle, guraso eta irakaslearen arteko harremana konfiantzan oinarritzea da. Aipaturikoaz gain, eskolan, alderdi afektibo-emozionala eta baita psikologia kognitibo eta ikas-irakaskuntza aktibo baten barneratzea ere badakar. Aldaketa pedagogiko honek, aldaketa arkitektoniko bat ere badakar, arkitekturak pedagogiaren menpe egon behar duelako eta ez alderantziz.</p> <p>Honekin guztiarekin, eskola egiteko modu berri bat planteatzen dugu. Haurren erritmo biologiko eta kognitiboa errespetatuz eta familia (gurasoak, aitona-amonak...) eskolara sartuz. Haurra konfiantzan sentituz.</p> <p>Haur bakoitza bakarra eta errepikaezina da: bere etorkizunean izango den pertsona oso eta zoriontsu bezala garatzeko, konfiantza sentitu behar du bere inguruan, bai eta bere buruarengan eta bere guraso zein irakasleengan ere. Hezitzaileok, gurasook edota haurrekin kontaktuan gauden pertsona orok, konfiantzan oinarritutako begirada garatu behar dugu eta haurrak bere kabuz garatzeko duen ahalmenean sinetsi.</p> <p>Haurren interes eta esperientzietatik abiatuz; libreki ekinez, manipulatur, sortuz, bere barneko beldur, zailtasun amets zein emozioak ulertuz, sentituz eta gaindituz garatzen joango da. Horregatik, berebiziko garrantzia du haurrari espazio aberats eta aukera anitz eskaintzea, esperientzia pertsonal hauei tira eginez ikaskuntza sendoak barneratuko baititu.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS María Eta José HLBHIP – Zumaia (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	http://www.mariatajose.eus/es/

17 ESPERIENTZIA

Izenburua	Kalitatezko kudeaketa: prozesuekin lanean
Edukia	<p>Kalitate sistema eta berau osatzen duten prozesuen kudeaketa landu nahi da ondorengo elementuak bilatuz: prozesuen inputak eta outputak, sekuentziazioak eta interakzioa, irizpideak eta adierazleak, baliabideak, ardurak, arriskuak eta neurketa, ebaluazioa eta hobekuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Kalitatea” kontzeptua • Funtzioen-zereginen araberako antolaketa • Helburuak eta adierazleak • Ez adostasuna • Jabea eta prozesu taldea • Dokumentazioa <p>Helburuak:</p> <p>1. Ikastetxeko kudeaketa sistema/k:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntzeko dago, • Hausnartzea eragin behar digu, • Baliorik ematen ez duten zereginak ezabatzen lagundu behar digu • Ikastetxean egiten dakigunak ageri utzi behar du • Ikastetxeko kultura eta baloreak indartu behar ditu • Kudeaketa etengabe hobetu behar du • Berrikuntzan lagundu behar du <p>2. Gure sistema ISO 9001:2015 ziurtagiria lortzeko prest egon behar du</p> <p>Metodologia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lanerako eta praktika onen trukerako bilerak egin, kudeaketa sistema eta berau osatzen duten prozesuen berrikustea eta eguneratzea bultzatzeko
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS IRUNGO LA SALLE HLBHIP – Irun (Gipuzkoa)
Informazio osagarria	http://www.irungolasalle.org/

18 ESPERIENTZIA

Izenburua	1x1 ordenagailuen ezarpen prozesu integrala.
Edukia	<p>Helburu orokorra: Ikastetxearen (Gelen) digitalizazio orokorra lortu, tresna teknologikoetan ikasle eta irakasleen erabilera erraztuz irakaskuntza-ikasketa prozesua, ebaluazioa eta ikastetxearen antolamendua hobetuz. Ikaslea ikasketaren protagonista izango da.</p> <p>Helburu zehatzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektua aurrera eramateko behar den egitura teknologikoa (sareak, kontroladoreak, antenak,...) sortzeko beharizan teknikoen azterketa. • Erabiliko den ekipoaren aukeraketarako beharrezko baldintzak zehaztu azterlan bat egin. • Hasierako ezarpen planaren diseinua. <p>Edukiak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Testuingurua. Egoeraren azterketa 2.- Azpiegiturak (Wifi, Firewall, segurtasuna, sareak, zerbitzariak, sistema elektrikoa.....) 3.- Ikasle eta irakasleen lan egiteko moduan aldaketa. Pentsatu eta hobeto egin, pentsatu eta desberdin egin. 4.- Benchmarking-a. Esperientziak ezagutu. 5.- Erabakiak hartzea <ul style="list-style-type: none"> • Ekipoak. Ekipoen analisia. • "Brecha digital" delakoari nola aurre egin. • Familiei komunikazio. Alde onak eta arazoak. 6.- Ezarpen prozesua <ul style="list-style-type: none"> • Renting-a. mantentzea, aldaketak-ordezkapenak,..... • Arlo ekonomikoa • Bajak, altak, errepikapenak,.... Nola kudeatu? • Ekipoak mantentzearen kudeaketa. 7.- Aldaketa prozesua <ul style="list-style-type: none"> • Liburuen kudeaketa. Liburuak + ekipoa =</ liburuak • Liburu Digitalak • Norberaren materialak sortzea/Ikastetxearen materialak 8.- Hezkuntza plataformak. Ekoizpenerako, kreatibitaterako, gestiorako, informazioa gordetzeko,.... Aplikazio eta programak. <ul style="list-style-type: none"> • Office 365 • Moodle • Google Education 9.- Irakasle, guraso eta ikasleen prestakuntza. 10.- Zertifikazioak/Ziurtagiriak 11.- Aldaketa Metodologikoa <ul style="list-style-type: none"> o Lan egiteko beste modu batera egokitze metodologia aldaketak. Ikaslea da ikasketaren protagonista. o Beste metodologia batzuk landuz: EBIK, lan kooperatiboa, proiektuak,... <p>Ebaluazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunearen eta testuinguruaren azterketa. • 1x1-aren ezarpen plana egitea. • Ikastetxearen testu inguruan aldaketa metodologikoa aurrera erango duen proiektu baten garapena. • Material berrien sorketa edota material digitalen aukeraketa
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS San Jose-Jesuitak HLBHIP – Durango (Bizkaia)
Informazio osagarria	www.durangojesuitak.org

19 ESPERIENTZIA

Izenburua	“OneNote (Class Notebook) klaseko koaderno”
Edukia	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasle eta ikasleen gaitasun teknologikoa hobetu OneNote (Class Notebook) tresnaren bidez. • Erantzukizuna eta lankidetzaz hezkuntza elkarte guztian indartu. • Ikasleen produkzioa hobetu, material guztiak koaderno digital batean batuz. <p>Edukiak:</p> <p>Nola funtzionatzen du klaseko koadernoak (OneNote)?</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Zer da klaseko koaderno bat (Onen-Notebook) eta zertarako erabili daiteke. 2.- OneNote-n ezaugarriak eta osagaiak ezagutu. Instalazioa eta kokapena. 3- Sortu ezazu, arlo baterako, zure ikasleentzat koadernoak. 4.-Material interegarria, interaktiboa eta entretenigarria <ul style="list-style-type: none"> • Nola antolatu koadernoak, diseinua, txantiloak, beste formatu batean dauden apunteez baliatu, errekursoak,.... • Ikasleekin nola lan egin. Ikasleentzat eta irakasleentzat materiala edozein tokitatik eskuragarri. 5.- Onenote dituen tresnak: <ul style="list-style-type: none"> • Antolamendurako taldeko edo bakarkako tresna. • OneNote lan batzarretarako (Irakasleak eta ikasleak) • Momentuko eta bateratutako edizio aukera. • Beste edozein pertsonarekin partekatzeko aukera • Eskuz idaztea • Diapositiba eta dokumentuetan apunteak hartzeko aukera. • Sekzio, sekzio taldeetan, orrialdeetan,... lan egiteko aukera. • Plantilen erabilera. (Batzarrak, lanak,...) • Partekatutako koadernoak sortu kolaborazio proiektuetan parte hartzeko. • Marrazketa tresnak • Orrialdeetan edukiak sartzea • Bideo eta audioa txertatzea • Office tresnekin integrazioa. • Nola partekatu eta elkarrekin lan egin nota blog batean • Baimenen kudeaketa • Datuen gordetzea kolaborazio guneetan • Pasahitzen erabilera (Zati batzuk pasahitzez babestea) • Onenote-tik datuak esportatzea eta inportatzea. • Onenote laguntzaileak /“asistenteak”. • Microsoft Classroom-ekin erlazioa • Zure pentsamendu eta ideiak antolatzea. <p>Ebaluazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Onenote eta Class Notebook antolamendu, lan eta lan kolaboratiborako tresna moduan erabiltzea.
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS San Jose-Jesuitak HLBHIP – Durango (Bizkaia)
Informazio osagarria	www.durangojesuitak.org

20 ESPERIENTZIA

Izenburua	Emozio-adimena barnekotasunetik abiatuta landu.
Edukia	<p>2 urtetatik Batxilergora arte aplikatzen den programa hau 'izaten' ikasteko gaitasunean heztera zuzendua dago, honela gure ikastetxeko pertsonak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gero eta pentsakorragoak izan daitezten • Irizpide etikoen alde egin dezaten • Anekdotatik haratago doan errealitatea behatu dezaten • Dimentsio eta adierazpen sinbolikoan irabaz dezaten • Konpromisora eramango dituen barnatasuna landu dezaten <p>Programa hau gure ikasleei eskaini ez ezik gure familiei ere eskaintzen diegu. Zuen seme-alaben esperientziak elkarbanatzeko eta haiengandik ikasteko.</p> <p>Lan-metodologia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldekako lana. • Erlaxazio, irudikatze, arazoan kudeaketa eta barnekotasunaren dinamikak. • Bizitakoaren inguruko gogoeta pertsonala. • Bizipen eta sentimenduak partekatu. • Kurtsoan zehar eta ikasgai ezberdinetan dinamiken antolakuntza.
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS La Salle Bilbao HLBHIP – Bilbao (Bizkaia)
Informazio osagarria	https://lasallebilbao.sallenet.org/

21 ESPERIENTZIA

Izenburua	Android sistema eragilea Windows eta Chromium-en aurrean
Edukia	<p>1x1, txokoak, etab. bezalako metodologia desberdinak erabiliz, Android sistema eragilea duten tresnen erabilera Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.</p> <p>Lan kooperatiboa eta proiektukako lanaren metodologiaren estalpean, Android sistema eragilea duten aparailuak erabiltzen ditugu curriculumean ezarritako eduki eta konpetentziak gauzatzeko.</p> <p>Proposatutako tutoretza "Otik hasita" planteatzen da, beharrezkoak diren gutxiengoak zehaztuz eta "azkenengo pausuan" bukatuko litzateke, non zentroak Android sistema eragilea duen tresna zein izango den erabaki behar duen.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS El Ave María HLBHIP – Bilbao (Bizkaia)
Informazio osagarria	http://www.elavemaria.eus/

22 ESPERIENTZIA

Izenburua	Barrentasuna lantzen
Edukia	<p>-Goizeko gogoeta</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gorputz kokapena • Arnasketa • Erlaxazioa • Irudikatzea • Masajeak <p>-Barrentasuna oinarritutako ikasgaiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tutoretza • Gorputz Hezkuntza • Arte Hezkuntza • Bestelakoak <p>-DBH topaketak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaizko topaketak • Barrentasuna: Pertsonaren barruko adimena • Taldeko tresnak: pertsonen arteko adimena <p>-Batxilergoko topaketak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaizko topaketak • Barrentasuna: Pertsonaren barruko adimena • Taldeko tresnak: pertsonen arteko adimena
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Sta. María HLBHIP – Portugalete (Bizkaia)
Informazio osagarria	zuzendaritza@santamariaikastetxea.com https://santamariaikastetxea.com/es/

23 ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasketa eta Zerbitzu Solidario Esperientziak
Edukia	<p>-Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, zeharkako hezi-tresna.</p> <p>-Elkartasun hezkuntza Batxilergoan.</p> <p>-Proiektu bat: Gizarte Heziketa Proiektua (Batxilergoa)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Formakuntza • Elkartasun Praktiak eta jarraipena • Balorazioa <p>-Ikastetxe osorako Ikasketa eta Zerbitzu ibilbidearen diseinua Berrikuntza Pedagogikoarekin bat.</p>
Elkartea / Federazioa	Kristau Eskola
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Sta. María HLBHIP – Portugalete (Bizkaia)
Informazio osagarria	zuzendaritza@santamariaikastetxea.com https://santamariaikastetxea.com/es/

24 ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikaskuntza kooperatiboa eta adimen aniztunak. Kagan metodologia.
Edukia	<p>"Lankidetzako ikaskuntza" askotariko ikasleen arteko interakzioan oinarritzen da; horiek, 4 kideetik 6ra bitarteko taldeetan, hainbat alderdiren gaineko ikaskuntzan dihardute lankidetzan, irakaslearen laguntzaz, irakasleak prozesua gidatzen eta ikuskatzen duela.</p> <p>Lankidetzan jarduteko ikaskuntzaren kontzeptua da, ez ikaskuntza lehiakorraren eta ez individualistaren kontzeptua; taldeko laneko ohiturak garatzea du helburu, ikaskideen arteko elkartasuna eta ikasleek modu autonomoan esku hartzea beren ikaskuntza-prozesuan.</p> <p>Egindako ikerketen arabera, taldearen ikaskuntza-prozesua ez du hobetzen laguntza emateak edo jasotzeak, baizik eta laguntza behar izatearen kontzientziak, komunikatzeko behar kontzienteak eta lanean eskaintzen duenaren laguntza hitzez adierazteko eta integratu behar izateko ahalegina. Feedbacka funtsezko elementua da lankidetzako ikaskuntzaren ondorio positiboak azaltzeko.</p> <p>Taldeko lanak errendimendua areagotzen du ikaskuntza-prozesuan: ikasleek beren buruari ezarritako laneko helburuek gehiago sustatzen dute emaitza onak lortzeko ahalegina, kanpotik ezarritako helburuek baino.</p> <p>Lankidetzan oinarritutako lanak ikasleen esperientzia-eremua zabaltzen du eta beren komunikazio-trebetasunak areagotzen ditu; izan ere, trebatu egiten ditu gainerakoen ikuspuntuak ezagutzen jakitean eta sustatu egiten ditu taldeko lanaren trebetasunak, dela norberaren argudioak defendatzeko, dela iritzia aldatzeko, beharrezkoa bada.</p> <p>Halaber, "adimen anitzen" teoriarekin ere lotzen da, ikasleen adimenik ahulenak indartu eta, aldi berean, beren indar-guneak sendotu nahi dituen metodologiaren bidez. Norberaren beharretara egokitutako prestakuntzarako bidea da; bertan, ikasle bakoitzari modu batera irakats diezaiokegu, bere adimenen profilean oinarrituta, horietako bakoitzarekin gutxieneko onargarria lortzeko.</p>
Elkartea / Federazioa	Ikasgiltza Federación de Cooperativas de Enseñanza Plurilingüe.
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Pedagógica San Prudencio S.C.L. HLBHIP – Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	direccion@colegiosanprudencio.net http://colegiosanprudencio.net/

25 ESPERIENTZIA

Izenburua	Utzi sormena ikasgelan sartzen eta "Gozatu"
Edukia	<p>"Gozatu" Lehen eta Bigarren Hezkuntzan sormenerako eta ekintzailtzarako lan-sistema baten ondoriozko esperientziak eta ezarpenak sortu da. Jatorria bi alderdi horiek trebatzean datza, "berrikuntza irakasteko"; hori ezinbestekotzat jotzen dugu, gure ikasleen hezkuntza integrala bilatzen ari bagara, benetan etorkizunerako prestatzen dituen hezkuntza bilatzen ari bagara.</p> <p>Helburua da gure ikasleen sormena sustatzeko eta lantzeko tresnak ematea. Sormena ikasleei ikastaro aurreratuetan edo lan-munduan edo ezinbesteko hobekuntza eta eraldaketa sozialean arrakasta izateko aukera emango dieten gaitasunen zati da.</p> <p>Hezkuntza-erakundeek maila guztietan egiaztatzen dute zein garrantzitsua den ikasleek beren autonomia pertsonala eta erantzukizuna hobetuko dituzten gaitasunak garatzea, eta horien artean berariaz adierazten dute sormena, ikasleei aldaketa sozialerako eta lanbide-eremuan integrazioerako ahalmena emango dien gaitasuna bezala.</p> <p>Ikasleekin sormena lantzeak ez die bakarrik aukera emango bakarka burutsuagoak eta biziagoak izateko eta aukeretara eta beste ikuspegi batzuetara zabalago egoteko. Gainera irakatsiko die sormena biderkatu egiten dela, taldean lan egitean. Sormena lantzeak aukera emango du etorkizunean ikasleek sortu ahal izateko edo, hobeto, eragin ahal izateko, beste batzuegan ideiak eragiteko, ikasi dituzten teknika eta baliabideen eta orain lantaldearen zerbitzura jar ditzakeen bidez.</p> <p>Sormena lantzea gure ikasleen aukerak hainbat eremutan areagotzea dela kontuan hartuta, nahitaez landu behar dugu eta erabakitasunez, gainera. Hori da ikasturte honen helburua, programa zehatz bat ikasle errealekin aplikatzeko esperientzia aurkeztea.</p> <p>Egitura: "Gozatu" bost multzotan antolatuta dago, eta bakoitzean zenbait gai landuko dira:</p> <p><u>1. multzoa.</u> Testuinguruan jartzea. Zer da sormena? Sormenaren inguruan dauden ideiak ezagutzea. Zer iritzi dute adituek? Nola has gaitzke?</p> <p><u>2. multzoa.</u> Creaktividad.es. Hitz-jolasa da. Unitate honetan ikasgelako jarduera batzuk biltzen dira, sormena gai bakoitzetik lantzeko. Ez dira jarduera sortzaileak, baizik eta irudimenaren eta ekimenaren erabilera sustatzen duten jarduerak.</p> <p><u>3. multzoa.</u> Sormen-teknikak. Sormen-teknikak baliabide erabilgarria eta garai hauetan oso erabiliak dira. Eskola-ingurura egokitutako teknika batzuk eskaintzen dizkizugu, ikasleekin landu ditzazun.</p> <p><u>4. multzoa.</u> Sormena ikastetxean. Sormena ez da ikasgelako kontu bat, ez da irakasle jakin baten kontu bat. Atal honetan, sormena ikastetxean ezartzeko tresnak emango dizkizugu.</p> <p><u>5. multzoa.</u> Jokoak eta dinamikak. Sormenak aurretiko lana behar du. Zenbait dinamika eta joko aurkeztuko ditugu, sormenerako giro egokia sortzeko.</p>
Elkartea / Federazioa	Ikasgiltza Federación de Cooperativas de Enseñanza Plurilingüe.
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Urkide HLBHIP – Vitoria-Gasteiz (Araba)
Informazio osagarria	info@urkide.org http://www.urkide.org/

26 ESPERIENTZIA

Izenburua	Gaitasunetan eta balioetan oinarritutako hezkuntza-kalitatearen kudeaketa.
Edukia	<p>Hezkuntza-berrikuntzaren esperientzia integrala da; azken helburua du ikasle bakoitzak bere eskubide eta betebeharren kontzientzia izatea, bizitzarako trebetasunak eta eskola-eremuan interakzioan jarduteko herritarren gaitasunak dituen, jarrera aktibo eta kritikoak dituen, balio pertsonaletan oinarrituta, inguruan berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko aldaketak sortuz.</p> <p>Pentacidad Baterako Hezkuntza-ereduan oinarritutako plangintza da, eta hezkuntza-gaitasun orokorren inguruko lan antolatua proposatzen du: pertsona izaten ikastea (identitate-eremua), bizitzen eta elkarrekin bizitzen ikastea (gizarte-eremua), ikasten eta pentsatzen ikastea (buruaren eremua), komunikatzen ikastea (gorputzaren eremua), sentitzen eta emozioak kontrolatzen ikastea (eremu emozionala) eta egiten eta ekiten ikastea.</p> <p>Ikasleek proposatzen ditugun herritar- eta hezkuntza-gaitasun orokorrak eskuratze aldera, norbera ezagutzeko eta zaintzako prozesuak ezarriko ditugu, beren aukeren garapen osoa lortzeko eta beren arrisku-alderdiak ezagutzeko, bai eta horiei nola aurre egin jakiteko ere.</p> <p>Hori horrela, bizitzarako gaitasunek pertsona orok eskolatzean eta derrigorrezko ikasketetan zehar bere garapen eta gogobetetasun pertsonalerako, integrazioarako eta enplegurako beharrezko dituen ezagutza, trebetasun eta jarrera transferigarriak eta multifuntzionalak adierazten dituzte, eta horiek bizitzaren ikaskuntza luzerako oinarri dira.</p> <p>Gaitasun bakoitza ikasteko eta eskuratzeko definizioan, jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko alderdiak ikusten ditugu, gaitasunekin lotuta. Gaitasun horiek aukera ematen dute norberaren gaitasun bakoitza zehatz garatzeko, eta bost eremutan antolatuta daude: identitatea, gizartea, burua, gorputza eta emozioa.</p> <p>Gaitasun horiek pertsonaren garapen integrala garatzeko eremuak kontuan hartuta egituratzen dira (identitatea, gizartea, burua, gorputza eta emozioa), eta bizitza-proiektua egiteko ibilbide edo bideetan antolatzen dira (ikasleen liburua).</p> <p>Pertsona hezkuntza-ekintza ororen erdigunean jartzen duen ikuspuntu humanista da, kontuan hartuta identitatearen eraikuntza garapen pertsonalaren, sozialaren, intelektualaren, gorputzekoaren eta emozionalaren motorra dela. Ikuspuntu hori sexu-identitatea (emakumea--gizona) eta izate bakar eta errepikaezina ezagutzetik abiatzen da, gaitasunetan garatzeko aukera ematen duten gaitasunez betea, identitate kolektiboek genero, kultura, gizarte eta erlijio estereotipoen bidez ezartzen dituzten baldintzatzaileak gaindituz.</p>
Elkartea / Federazioa	Ikasgiltza Federación de Cooperativas de Enseñanza Plurilingüe.
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS El Regato HLBHIP – Barakaldo (Bikaia)
Informazio osagarria	administracion@elregato.com http://colegioelregato.com

27 ESPERIENTZIA

Izenburua	Egungo hezkuntza-testuinguruan ikastetxeok osoko plana nola egin, gelan gailu mugikorrek erabiliz.
Edukia	<p>Sarrera eta testuingurua: Egungo hezkuntza-testuinguruan ikastetxeok osoko plana NOLA EGIN jakiteko beharra dugu, gelan gailu mugikorren erabilera sartzeko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldaketa metodologikoan tresna garrantzitsuak baitira. Heziberri 2020an planteatutako hezkuntza-erronkei erantzuteko bidea aurkituko dugu horrela.</p> <p>Bikaintasunaren helburu orokorra: Geletan aldaketa metodologikoa sustatu, bere ikaskuntzaren protagonista ikaslea izan dadin.</p> <p>Helburu zehatzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeen aldaketa metodologikorako planak egiteko erraztasunak eman, gailu digitaletan oinarrituta. - Ikastetxeen eta irakasleen eskumen digitala optimizatu. - Metodologia aktiboak eta inдукtiboak erabiltzea sustatu eta horretarako irakasleak eta zuzendaritza taldea trebatu - eta irakatsi, ezarritako esperientziak behatzearen bidez. <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Nola diseinatu aldaketa metodologikoko proiektua. <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren ikuspegia: abiapuntua. Arrakastaren faktore kritikoak: buruzagiak, helburu zehatzak, trebakuntza, inguru malguak, ezarpen-faseak. • Proiektua hasi:ekintzen, azpiegitura teknologikoaren, edukien eta ezarpenen denbora finkatu, inplementazioa (finantzazioa, irakasleak, familiak, gailuak aukeratu). • Ebaluazioa: arrakasta erakusten duten ebidentziak, arrakastaren adierazleak. - Metodologiari buruzko ekintza-plana. <ul style="list-style-type: none"> • Liburu digitalak vs zenbait baliabide. • Aplikazio natiboak: ekoizpenari, sormenari begira, gelako kudeaketa. • Webean oinarritutako aplikazioak: kudeaketa eta biltegitratzea, edukia sortu, mapa kontzeptualak eta aurkezpenak, eduki-antolatzaileak, plataformak. • Gizarte-sareak eta erabiltzaileen erkidegoak. • Baliabide digitaletako eskola-saio bat diseinatu. <p>Ebaluazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa metodologikoko proiektu baten lerro nagusiak garatu eta hobetu, ikastetxeko errealitatera egokituta. • Material eta baliabide pedagogikoetan eta euskarri digitalen katalogoak egin. • Baliabide digitaletako unitate didaktikoak (eskola-saioa) diseinatu.
Elkartea / Federazioa	Ikasgiltza Federación de Cooperativas de Enseñanza Plurilingüe.
Ikastetxe tutoreak	CPEIPS Trueba de Arxanda HLBHIP – Bilbao (Bizkaia)
Informazio osagarria	info@colegiotrueba.net http://www.colegiotrueba.net/

28 ESPERIENTZIA

Izenburua	Lankidetzaren sustatzea zentroan: Google APPs IKT-ak gelan sartzea: Google APPs
Edukia	<p>Web 2.0-a eskolako bizitzara helaraztea da ikastetxeetan planteatu behar dugun hurrengo helburua, honako puntu hauek lortu ahal izateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen kompetentzia digitala hobetzea, pixkanaka ikasleak ere digitalki trebatu daitezten. • Trámite burokratikoak erraztea, informazio kanalak hobetzea eta lankidetzarako lanabesak ezartzea, irakaslearen produktibitatea hobetzeko. <p>“Google Apps”-ak eskaintzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.0 tresnak kontu korporatibo batean: Drive, Gmail, Blogger, Sites... • Aipatutako tresnak oso indartsuak dira, alde batetik errazak direlako eta bestetik difusio-ahalmen handia daukatelako ikastetxean eta ikastetxetik kanpo. • Beste tresna batzuekin bateragarriak dira eta bitartekoen aplikazioak onesten dituzte, hala nola mapa kontzeptualak egiteko erremintak. • Lankidetzaren ahalbidetzen dute, zentrotik eta etxetik, inolako instalaziorik edo mantentze-lanarik egin gabe. <p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen kompetentzia digitala hobetzea, pixkanaka ikasleak ere digitalki trebatu daitezten. • Trámite burokratikoak erraztea, informazio kanalak hobetzea eta lankidetzarako lanabesak ezartzea, irakaslearen produktibitatea hobetzeko. • Lankidetzaren sustatzea, bai gelan bai zentroaren ingurunean, giza lanabesekin, komunitateak garatzeko tresnekin... <p>Jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lankidetzarako hurrengo tresnen ezarpena ikastetxean: <ul style="list-style-type: none"> • Gmail • Drive • Classroom • Google Sites • Google Groups • Blogger - Erreminta hauen erabilera sustatzeko formazioa. - Praktika onak partekatze saioak, erreminta bakoitzarekin eta adibide errealekin, gelan eta zentroaren inguruan izan dezaketen aplikazio zuzena ikusteko. <p>Ebaluazio adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kompetentzia digitalean lortutako emaitzak. - Familiaren eta ikaslearen asebetetzea irakasle-praxiarekin. - Sortutako material digitalen kopurua. - Parte hartu duen irakaslearen %. - Baliabide digitalen bitarteko ikasketa ezarri duten taldeen kopurua.
Elkartea / Federazioa	Ikasgiltza Federación de Cooperativas de Enseñanza Plurilingüe.
Ikastetxe tutoreak	CPES Zabalburu BHIP – Bilbao (Bizkaia)
Informazio osagarria	info@zabalburu.org http://www.zabalburu.hezkuntza.net

III. ERANSKINA

«PARTEKATUZ IKASI» ESPERIENTZIETAN PARTE HARTZEKO AKORDIOA

....., 2017koarena.

BILDUTAKOAK

Batetik,.....,«Partekatuz ikasi» esperientzia bat egingo duen..... ikastetxearen izenean.

Bestetik,....., koordinatzailea izango da ikastetxean. «Partekatuz ikasi» esperientzian tutorearena egiteko izendatu da ikastetxea.

AZALDU DUTE:

I.– «Bikaintasunerantz» deialdiaren babesean ikastetxeak eskabidea aurkeztu du honako «Partekatuz ikasi» esperientzia hau egiteko:

II.– ikastetxea esperientzia horretan laguntzeko tutore izendatu da.

Horregatik, honako hau

ERABAKI DUTE:

1.– Lan-egitasmo bat onartzea, akordio honi erantsiko zaiona, «Partekatuz ikasi» esperientziaren bilakaera finkatzeko. Haren barruan, tutorearena egiten duen ikastetxea hirutan joango da gutxienez eskaera egin duen ikastetxera, eta eskaera egin duen ikastetxea behin gutxienez tutorearena egiten duen ikastetxera.

2.– Honako betebeharrak ezartzea eskaera egin duen ikastetxeari:

- Ikastetxean esperientziaren bilakaera koordinatzeko arduraduna izendatzea.
- Tutorearena egiten duen ikastetxearekin lan-egitasmoa zehaztea, prozesuaren fase guztiak gauzatzea eta parte aktiboa hartzea.
- Ikastetxe interesduneko kide guztiek esperientzia osoan parte hartzen dutela bermatzea.
- Esperientzian oinarritutako jardunbide bat abiaraztea ikastetxean.
- Prozesua ebaluatzea eta amaierako memoria egitea.
- Esperientzia klaustroari ezagutaraztea.
- Esperientziaren amaieran, ikastetxe gisa erabakitzea ea egokia den ala ez esperientziaren bidez ikasitakoa ikastetxean aplikatzea.
- Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariarekin harremanetan egotea, esperientziaren bilakaerari buruzko informazioa emateko.

3.– Honako betebeharrak ezartzea tutorearena egiten duen ikastetxeari:

- Ordutegia behar bezala egokitzea, eta tutoreei beren lana egiteko malgutasuna ematea, «Partekatuz ikasi» esperientzian duten zeregina bete dezaten.
- Eskaera egin duen ikastetxeari esperientziari buruzko prestakuntza ematea eta esperientzia egiteko beharrezko materiala eta dokumentuak ematea.
- Eskaera egin duen ikastetxera gutxienez hirutan joatea, haren testuinguruaren berri izateko.
- Eskaera egin duen ikastetxea esperientziaren inguruan aholkatzea eta praktika bat abiarazteko aholku ematea.
- Esperientziaren eta praktikaren bilakaeraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, bai eta eskaera egin duen ikastetxearen inplikazioarena eta parte-hartzearena ere.

4.– Tutorea izendatu den ikastetxeari esleitutako 1.500 euroak «Partekatuz ikasi» esperientzia egiteko gastuak ordaintzeko erabiltzea: joan-etorri eta bisitaldien gastuak eta materiala eta dokumentuak prestatzekoak (eskaera egin duen ikastetxearenak zein tutorearena egiten duenarenak).

Bi alderdiek, bat datozela adierazteko, hasieran aipatutako egunean eta lekuan, akordio honen bi ale sinatu dituzte. Ondoren, kopia bat bidaliko diete eskaera egin duen ikastetxeari dagokion Berritzeguneari eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari.

Eskaera egin duen ikastetxearen izenean,

Koordinatzailea, tutorearena egiten duen ikastetxearen izenean,